

EUSKARAZKO BALIABIDE ETA TRESNA INFORMATIKOAK

INFORMAZIO OROKORRA

IRAUPENA 4 ordu

HARTZAILEAK

EAEko Herri Administrazioetako langileak.

HAUTATZE IRIZPIDEAK

Eskaerak egin dituzten erakunde guztietako gutxienez langile bana onartzea lehenetsiko da.

LEHENTASUNA

Erabilera Planaren eraginpean dauden langileek lehentasuna izango dute ikastaro honetan parte hartzeko.

IKASTARO ESKAINTZA

Apirilaren 16tik 20ra

ESKATZEKO AZKEN EGUNA

Martxoaren 23a

ONIRITZI EPEA

Martxoaren 26tik apirilaren 6ra

BAJA EMATEKO EGUNA

Apirilaren 16a

ZER LORTU NAHI DA

HELBURU OROKORRAK

Euskaraz lan egiteko gaur egun dauden laguntza informatikoen ikuspegi orokorra izatea.

HELBURU ZEHATZAK

- Euskaraz lan egiteko administrazioan dauden baliabide informatikoen berri izatea eta erabiltzen jakin (IDABA, ELET, EUSKALTERM, DUDA-MUDA...).
- Baliabide hauen erabilera erraztuko duten tresna praktikoak ezagutu, instalatu eta erabiltzen hasi (ELET barra, DUDANET...).
- Testu egokiak euskaraz sortu eta egokitzeko tresnak ezagutu eta erabili (XUXEN, EUSKALBAR).
- Sistema eragileetan (Windows, Mac, Linux) eta bulegotika paketeetan (Office, OpenOffice, LibreOffice) hizkuntza ezarpenak nola aldatu ikasi.
- Internet nabigatzaileetan (Explorer, Firefox, Chrome...) hizkuntza ezarpenak nola aldatu ikasi.
- Euskarazko testu-administratibo eta teknikoaren bilduma espezifikoak ezagutu (corpusak, eredu-bildumak...).

GAITASUNAK

Ikasleak euskaraz dauden gaur egungo baliabide informatikoak ezagutuko ditu eta instalatzeko gai izango da. Horretaz gain, tresna horiek bere lanean erabiltzeko gai izango da.

PROGRAMA ETA EBALUAKETA

METODOLOGIA

Azalpen teorikoak eta praktikoak uztartuko dira ikastaroan zehar.



EUSKARAZKO BALIABIDE ETA TRESNA INFORMATIKOAK

PROGRAMA

- SARRERA: Euskaraz lan egiteko edo euskaraz idazteko gaur egun dauden baliabide informatikoen ikuspegi orokorra.
- Sistema eragileetan (Windows, Mac, Linux) hizkuntza-ezarpenak aldatzen ikasi, eta aukera dagoen kasuetan, aldaketa burutzea.
- Internet-nabigatzaileen hizkuntza-ezarpenak aldatzea (Explorer, Firefox, Chrome).
- Bulegotika paketearen hizkuntza-ezarpenak aldatzen ikasi eta aukera dagoen kasuetan, aldaketa burutzea.
- Administrazioko euskarazko lineako baliabideen (ELET, IDABA, EUSKALTERM, DUDA-MUDA...) errepasso teoriko-praktikoa.
- Baliabide horiek erabiltzeko tresnak ezagutu, instalatu eta erabiltzen hastea (ELETbarra, DUDANET).
- Testu egokiak idazteko bestelako laguntza-tresnak ezagutu (XUXEN, HOBELEX, EUSKALBAR, HIZTEGIBAR).
- Hainbat corpus eta testu-ereduen bildumak ezagutu.

EBALUAZIOA

Ebaluaketaren helburua: ikastaroaren helburu orokor eta zehatzak bete edo lortu direla bermatzea.

IKASTAROAREN BALORAZIOA

Ikasleen lineako gogobetetze-inkesta, jarduera-txostena eta irakaslearen balorazio inkesta

ZIURTAGIRIA: APROBETXAMENDUA

Unitateetan proposatzen diren ariketak egin (%80) eta proba praktikoa gainditzea (testu-administratiboko paragrafo baten itzulpena).

PREZIOA

31€

AGINDUA, 2014ko abenduaren 11koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen zenbatekoa ezartzen duena.
EHAA, 2014ko abenduaren 30ekoa, 248. zk.